

JUSTIZIA. Erantzun juridiko kritikoak eman nahi dizkiete indarrean jartzen ari diren legeei

Abokatu Euskaldunen Sindikatua barnetik sendotzea erabaki dute

Hiru hilabeteko epean erakundea nola hobeto antolatu aztertuko dute bi lantaldeetan

I. Petxarroman | DONOSTIA

Azken boladan antolakuntza aldetik «disfuntzio» batzuk sumatu dituztela-eta, «sindikatu barnetik sendotu eta hezurdura emateko» prozesu bat zabaltea erabaki zuen atzo Abokatu Euskaldunen Sindikatua (AES). Donostiako Zorroagan Aranzadi elkarteak duen egoitzan egin zuen batzar nagusia atzo AESei, eta hiru hilabete iraungo duen prozesua zabaltea deliberatu zuten.

Horrela, bi lantalde osatzea erabaki zuten, hurbiltasun geografikoa irizpide hartuta: talde bat Bizkaiko eta Arabako kideek osatuko dute, eta beste bat Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrikoek. «Ikusi dugu antolakuntza aldetik gabeziak ditugula, eta horiek saihesteko sortu ditugu bi lantaldeak. Bakoitzak bere herrialdeetako egoerak aztertuko ditu, gero nazio osorako aterabide bateratua emateko. Ekainean beste batzar bat egingo dugu, lantaldeek egindako ponentziak onartzeko», adierazi zion kazeta honi Iñigo Santxo sindikatuko kideak atzo, batzarraren ostean.

Batzarrean euskarak egun justizia administrazioan bizi duen egoera aztertu zuten. Sindikatuaren iritziz, egindako salaketa lanaren ondorioz, euskarak bizi duen egoera «gizarteratu» egin da, baina egoera ez da hobetu. «Ez da aurrera egin, eta gainera ikusten dugu gabezia



Iñigo Santxo, Urko Aiartza eta Luix Barinagarrementeria, Abokatu Euskaldunen Sindikatuko kideak.

handia Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren epaileen gainean ezer erabaki ahal izateko», adierazi zuen Santxok.

Ekarpen juridikoa

Sindikatuak gizarterari ekarpen juridikoa egiteko asmoa du. Esaterako, erantzun juridikoak eman nahi dizkio indarrean diren eta jartzen ari diren lege eta arau zenbaiti: Nafarroako Euskararen erabilerarako dekretu berria, Espainiako Adingabeen

EGITURA

Bi lantalde

Datozen hilabeteotarako bi lantalde osatzea erabaki du Abokatu Euskaldunen Sindikatua (AES), egitura indartzen joateko. Talde bat osatuko dute Araba eta Bizkaiko abokatuak, eta beste bat Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrikoek, hurbiltasun geografikoa irizpidetzat hartuta.

Legea, Zinpeko Epaimahien Legea...

Lan hori taxuz egiteko, lehenengo sindikatua egituratu eta barnetik sendotu behar dela uste dute kideek: «Antolakuntza aldetik disfuntzioak atzeman ditugu, eta deskoordinazioa. Orain barrutik sendotzea da xedea, kanpora begira erantzunak emateko».

Esaterako, ekarpen juridiko sakonagoak egin ahal izango dituztela uste du Santxok, esate baterako, Kontseiluan.

EUSKARA

Baztango 35 talde eta elkartek Gobernuaren dekretua gaitzetsi dute

Erredakzioa | IRUÑA

Baztango 35 talde eta elkartek Nafarroako Gobernuak onartutako euskarareko erabilera arautzeko dekretua gaitzetsi eta haren aurkako ekimenak antolatu dituzte.

Atzo Elizondon egin zuten ekimenaren aurkezpen publikoa. Taldeen iritziz, Nafarroako Euskararen Legea «euskaldunen hizkuntz eskubideen aurka doala kontuan hartuta», foru dekretuak «are gehiago murriztuko du euskararen erabilera eta normalizazioa».

Baztandarrek Iruñeko administrazioan euskaraz mintzatzeko eskubiderik ez dutela izanen gaitzetsi dute, eta, halaber, lanpostu publikoetan euskarari atzerriko hizkuntzei adinako balioa ematea, «kontuan hartu gabe hiztun askoren ama hizkuntza dela».

Hori dela eta, Baztango taldeek, «gure hizkuntza eta gure eskubideak babesteko asmoz», hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Martxoaren 31n Jardunaldi Eguna egingen dute: txalaparta, dantzak, hamaitaketa... Apirilaren 21ean auto-karabana egingen dute herriz herri. Azkenik, apirilaren 28an euskararen aldeko herri itzulua egingen dute, «gure eskubideak bermatuak izan daitezen».



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA (E.G.A.) 2001EKO DEIALDI IREKIA MATRIKULALDI BAKARRA.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aditzera ematen du martxoaren 12tik 23ra bitartean, biak barne, irekirik egonen dela Euskararen Gaitasun Agiria (E.G.A.) eskuratzeko matrikulaldi bakarra, 2001eko ekain eta iraileko deialdi irekietarako balioko duena.

Azterketek, hiru proba izanen dituzte (atariko proba, idatzizko proba eta ahozko proba), denak baztertzailak. Ekain aldeko probak maiatzaren 26an, ekainaren 2an eta ekainaren 16an, hurrenez hurren, egingen dira Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean (Compañía kalea, 6-IRUÑA)

Matrikula (4.500 pta. balio duena) egiteko dokumentazioa Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Argibide bulegoan (Sto. Domingo Aldapa, z/g-IRUÑA) hartzen ahal da.

EGA deialdian ez dira matrikulatzen ahaliko, 2001. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan EGA eskuratzeko azterketetan matrikulatu direnak, ezta Nafarroako Foru Komunitateko irakasleendako berariazko probetan parte hartzen dutenak ere.

EGA deialdia eta 2001eko azterketaren antolaketa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emaniko azaroaren 21eko 1040/2000 Ebazpenak arautzen ditu (2000-12-1eko 145 zenbakidun N.A.O.)

Informazio gehiagorako, aipatu Aldizkarian edota 948 42 65 88 eta 948 42 66 13 telefonoetara deituz.

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA
INGURUGIRO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO, VIVIENDA
Y MEDIO AMBIENTE

INGURUGIRO ARLOKO DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ingurugiro arloan honako dirulaguntza-deialdiak zabalitzen ditu:

- Ingurugiro hezkuntzako sarrera edo indartze proiektuak garatzeko ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak.
- Ingurugiro hezkuntzako eskolaz kanpoko zentruetan egonaldiak egiteko ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak.
- Urdaibako Biosfera-Erreserbaren esparruan ingurugiro hezkuntzako proiektuetan oinarritutako ibilbide, egonaldiak edo topaketak egiteko ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak.
- Ingurugiroaren arloko jarduerak egiteko edota ingurugiroaren arloko boluntario lanetarako proiektuak garatu eta boluntarioen sareak antolatze dirulaguntzak.
- Ingurugiro arloko prestakuntza teknikorako plana garatzeko erakundeei zuzendutako dirulaguntzak.
- Ingurugiro arloko gradu-ondoko ikastaro unibertsitarioak antolatze dirulaguntzak.
- 21 Agenda eremuan herri-mailako ingurugiro-ekintzako planak diseinatu, garatu eta burutzeko udalteei eta mankomunitatei zuzendutako dirulaguntzak.

EPEA: Eskaera aurkezteko epea 2001ko apirilaren 17ra arte egongo da zabalik.

INFORMAZIO OROKORRA:

– 2001eko MARTXOAREN 14ko E.H.A.A.

– HARI BERDEA (Tfno.: 900-411 111/ P. E.: hari-berdea@ej-gv.es)

IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO DEIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA:

CEIDA: Bilbao (Tfno.: 94 411 49 99)

Legazpi (Tfno.: 943 73 16 97)

Urdaibai (Tfno.: 94 625 71 25)

Vitoria-Gasteiz (Tfno.: 945 17 90 30)

Donostia-San Sebastián (Tfno.: 943 32 18 59)



Astigarragako
Udala



IRAGARKIA

Jendearean jakinarazten da, 2001/03/12 datarekin, Udal Alkateak, 2001eko Otsailaren 21an ospatutako Obrak eta Zerbitzuko Batzorde Informatiboko oneritzarekin kontatuz, Ebazpena diktatu du honako hiritartze dokumentoa hasierako izaeraz onartuaz:

SUSTATZAILA: ASTIGARRAGAKO UDALA

GAIA: ESPALOI URBANIZAZIO PROIEKTUA, AUTOBUS GELTOKI ETA SARBIDE BERRIAK.

KOKAPENA: DONOSTIA IBI BIDEA, 35-37 MANGAS

Ekainaren 30eko 17/1994 Legearen 7.2 artikuluan xedatutakoa betez, jende aurrera zabalitzen da 15 eguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, baita ere lurraldeko egunkari baten ere argitara emango delarik, interesatuek egoki iritzizko alegazioak egin ahal izan ditzaten.

Astigarraga, 2001/03/12
ALKATEA, Eli Laburu Labaka